



**2009KO EKAINAREN 10EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko ekainaren hamarrean, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jaurregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2009ko apirilaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 7 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (93.049,94 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-016 zbk.dun esped.: Etxearen mantenimendu gastuetarako hilean 92,5 €ko diru-laguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-015 zbk.dun esped.: Etxearen mantenimendu gastuetarako hilean 92,5 €ko diru-laguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-011 zbk.dun esped.: Etxearen mantenimendu gastuetarako hilean 46,25 €ko diru-laguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.

IV.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIAREN ERAIKUNTZAREN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA ETA MAIATZEKO OSASUN ETA SEGURTASUN KOORDINATZAILEAREN FAKTURARI DAGOKION DIRULAGUNTZA ONARTZEA.-

Lazkaoko Aita Beneditarren egoitzan eraikitzen ari den Euskal Dokumentaziorako Agiritegia gordeko duen eraikinaren eraikuntza lanen bigarren obra-egiaztagiria, lauro-



geita zazpi mila ehun eta hirurogeita hemeretzi euro eta laurogeita hiru zentimotakoa (87.179,83 €) eta lanen osasun eta segurtasunaren koordinazioaren 2009ko maiatza hila-
beteari dagokion laurhun eta sei euroko (406 €) faktura ikusi ondoren, faktura hauei
udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman diela kontutan izanda eta agriritegi honen
eraikuntzarako Aita Beneditarrak eta Lazkaoko Udalaren artean izanpetuta dagoen hitzar-
menaren baitan, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Lazkaoko Aita Beneditarrei, faktu-
ren guztizko zenbatekoaren %17,15ko dirulaguntza ematea, hau da, HAMABOST MILA
ETA HOGEI EURO eta LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (15.020,97 €).

**V.- SAN PRUDENTZIOKO KIROL KANTXA EGITEAGATIK SAN PRUDENTZIOKO JABEKIDEEI
DIRULAGUNTZA .-**

San Prudentzioko kirol kantxaren obren inguruan udal arkitekto teknikoak hauek
zuzen egin eta amaitu direla adieraziz luzatutako txostenaren aurrean, Tokiko Gobernu
batzarrak, aho batez, obra hauen sustatzaile diren San Prudentzioko Jabekideei, udal au-
rrekontuan aurrikusitakoaren arabera, BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRURO-
GEITA HAMASEI EURO eta BERROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKo dirulaguntza ematea
erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du,
iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen
dudalarik.

